

Euskaraz egindako karrera bukaerako proiektuei saria

2015/03/04

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK eta MONDRAGON Korporazioak, laugarren urtez, saritu egin dituzte euskaraz idatzitako MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleen ikasketa amaierako lanik onenak.

Nahiz eta hasieran sari bakarra egon zen edizio bakoitzean, laugarren edizio honetan, hirugarrenean egin zen bezala, bi sari egon dira.

Aurkeztu diren 20 lanen artean, "Arizmendi ikastolako lehen hezkuntzako ikasle etorri berrien pertzepzioak euskararen ikaskuntzaren inguruan" ikasketa amaierako lana izan da MONDRAGON UNIBERTSITATEA-MONDRAGON sariko 4. edizioan lehen saria jaso duen lana eta "Barne logistikaren hobekuntza eta muntaketa-prozesuetako lan-kargaren orekatzea, igogailuen fabrikazioan", berriz, bigarren saritua.

MONDRAGON UNIBERTSITATEAK eta MONDRAGON Korporazioak antolatutako sariaren laugarren edizioa da hau. Sariaren helburua da MONDRAGON UNIBERTSITATEko ikasleak korporazioko enpresetan ikasketa amaierako lan gehiago euskaraz egitea eta oraingoan, ARIZMENDI IKASTOLAA eta ELECTRA VITORIA egindako bi lan izan dira sarituak.

Lan guztiak maila tekniko altukoak izan dira, eta epaimahaiak euskararen kalitatea izan du kontuan sariduna aukeratzeko.

Antolatzaileek 1.500 euroekin saritu dute euskaraz idatzitako lanik onena eta 500 euroekin, berriz, bigarrena.

